



'AITAREKIN BIDAIA' ANTZEZLANA GAUR

Jose Ramon Soroiz eta Joseba Apaolazaren azken lana ikusteko aukera egongo da Topic-en 20:30ean >4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2009-12-11**

VIIURTEA 1.849.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Jokin Bildarratz eta Francisco de Asis Etxebeste hitzarmena eskuan dutela. INIGO TERRADILLOS

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ELKARLANAREN BIDEZ

TOLOSA Udalak eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialak elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten atzo 2

Herriko plazatik irtengo da biharko manifestazioa

LEITZA Udalak deitu duen martxaren leloa 'Maxurrenea herrintzat, Utzi pakean' izango da 7



I. Antton Pebet Memoriala antolatzen ibili da Iñaki Lizaso. ENERITZ MAIZ

Eskuz Binakako Txapelketa Antton Pebeten omenez

VILLABONA Bear Zana Kirol Elkarteak I. Antton Pebet Memoriala antolatu du 6


TEUSA



teusa@teusa.com

www.teusa.com

FATXADA ETA ESTALKIEN KONPONKETA
ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK

Tel.: 943 401 340

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua hobetuko duen programa martxan da

Osasuna » Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Osasun sailak elkarlanean burutuko dute zerbitzu berria.

INIGO TERRADILLOS

Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Sendagileen Elkarte Ofizialak, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileei sendagaiak «modu zainduagoan» baliatzeko programa martxan jartzeko lankidetzaz hitzarmen sinatu dute. Programa edo zerbitzu berria mendekotasuna duten pertsona orori zuzendua izango da, hau da, zerbitzura izendatuta daudenei eta sendagai edota osasun produktuekin tratamenduan daudenei. Gizarte zerbitzuak eta Osasun arloak elkarlanean burutuko duten zerbitzua izango da.

Jokin Bildarratz, Tolosako alkateak, eta Francisco de Asis Etxebeste, Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialaren (GSEO) presidentek, atzo sinatu zuten hitzarmena. Azaldu zituzten araberak, «etxez etxeko zerbitzuaren erabiltzaileek hartu beharreko sendagaien erabiltzea hobetuko da zerbitzu berriarekin, akatsak ekidin eta tratamendua betetzen dela ziurtatuko da, sendagai zein osasun produktuekin erlazioan dauden etxeko laguntzaile edo zaintzaileari laguntza emanez».

Tratamenduen betetze zuzena
Egun 150 lagun inguruk jasotzen dute Tolosan etxez etxeko laguntza. Horietatik, sendagaien erabi-



Francisco de Asis Etxebeste eta Jokin Bildarratz, atzo eginiko ekitaldian. I.T.

lerarako autonomoak direnen eta mendekotasunen bat dutenen sendagaien erabiltzea hobetu nahi dute zerbitzu berriarekin. Era berean, udalerriko kolektibo honek sendagaiak sarbidea eta tratamenduaren betetze zuzena lortzea du helburu. Hori lortzeko, etxeko laguntzaile edota zaindariaren lanarekin lankidetzaz egongo da, sendagaien eskuraketa, iraupena eta administrazioarekin zerkusua duten alorrean.

Funtzionamendua

Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuen sailak erabakiko du zerbitzu berri hori nori bideratu. «Ez dira etxez etxeko zerbitzua jasotzen duten herritar guztiak izango, polimedikatuta daudenak sartuko

dira, hau da, egunean sendagai kopuru zehatz bat hartzen dutenak soilik».

Farmaziak edo botikak eta etxez etxeko zerbitzua eskaintzen dutenak daude ekimenaren baitan. Hori bai, bertan parte hartu ahal izateko, aurrez Gipuzkoako Sendagaigileen Elkartetik egiaztapena jaso beharko dute botikek.

Sendagaien dosifikazio sistema personalizatua erabiliko dituzte. Horrela, eguneko une bakoitzean gaixoak hartu behar dituen pilulak zehazten dira, eta hauek dosi bakoitzaz ongi banatzeko behar den informazioa izango dute.

Programan sartu baino lehen, erabiltzaileek onarpen agiri informatua sinatu beharko dute. Ondoren, norberaren fitxa betetzen

dute, hartzen dituen sendagai eta dituen osasun arazoengatik inguruko xehetasun guztiak. Fitxa hori aldatzen joango da, tratamenduan aldaketak dauden heinean. Hala, hamabostero farmazialariak sendagaiak zainduko ditu eta dosifikatzaile pertsonalizatuak emango ditu.

Etxez etxeko zerbitzua «hobetzeaz» gain, «aurrez» ere egingo dela nabarmendu zuten atzoko aurkezpenean. «Sendagaiak gehiago kontrolatuko ditugu orain, horrek gaixoari begira ekarriko dituen onurekin, eta gainera, aurrez ere egingo dugu, beharrezkoa den sendagai kopurua erabiliko baitugu soilik», azaldu zuen Nerea Letamendia Udaleko azoka saileko zinegotzia eta botikariak.

Bestalde, ekimenaren helburuak betetzen direla bermatzeko, jarraipen eta ebaluaketa sistema ezarri dute. Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuen sailak eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialak egingo dute hori.

Zerbitzuaren «harrera ona»

Tolosan bezala, Ordiziako Udalarekin ere sinatu zuten atzo hitzarmena Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarteak. Guztira, 10 udalerrik jarri dute martxan zerbitzua Gipuzkoan: Donostian, Errenterian, Ataunen, Legazpin, Irunen, Getarian, Urmietan, Eskoriatzan, Ordizian eta Tolosan.

GSEOfik ekimena izaten ari den «harrera ona» azpimarratu dute, eta Euskal Herriko udalerriguztietan irekita dagoela zerbitzua gogorazari dute.

Laburrak

Chernobilekoen bilera, bihar Donostian

GIZARTEA » Chernobileko Umeak elkarteak bilera egingo du bihar, Donostiako Ernets LLuc liburategian, 16:30etik aurrera. Elkarteak ezagutzera eman nahi dute bilera honen bidez, eta eskualdeko familiei euren egitekoaren berri eman nahi diete. Halaber, familia berriak aurtengo udako programan parte hartzerako gonbidatuko dituzte.

Bertsolari Txapelketa Nagusirako autobusa

BERTSOLARITZA » Bertsosozale elkartetik jakinarazi dutenez, etzi Txapelketa Nagusirako joateko autobusa, Tolosatik, Santa Klaratik, irten-go da. 08:10ean aterako da, baina 15 minutu lehenago egotea gonmendatu dute elkartetik.

Christian Ravier izango da gaur, Oargi elkartearen

MENDIA » Oargi elkartearen Mendi Hamabostaldien barruan, Christian Ravier eskalatazalea izango da gaur, elkartearen bertan, 19:00etatik aurrera. Eskainiko duen emanaldia kirol eskaladari buruzkoa izango da. Ravier Frantziako goi mendi eskolako gidaria da eta bide asko ireki ditu Pirinioetan eta munduko beste paretara askotan. Eskalada klasikoa eta izotz eskalada egiten ditu.

Barrearen eskolan tailerra datorren larunbatean

GIZARTEA » Tolosako Barrearen Eskolan Gabonetan eta urte osoan barre egin eta bizitzeko artea izeneko tailerra egingo dute hurrengo larunbatean, hilaren 19an. 10:00etatik 13:30era izango da goizez eta 17:00etatik 20:30era arratsalde. Bakarra edo biak egin daitezke. 943118669 telefono zenbakian lortu ahal da informazio gehiago.

Elkarretaratzerako deitu dute gaurko Topik-en aurrean

GIZARTEA » LAB, Bilgune Feministak eta Askapenak babestuta, Topik-en aurrean elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:30ean. «psa den astean israeldar txotxongilo taldeari boikot egiteko deituriko elkarretaratzean izandako eraso salatzeke».

Dependentziari buruzko hitzaldia, gaur Artubin

GIZARTEA » Ehneler eta Generazioarteko Solidaritateak antolatutako dependentziari buruzko hitzaldia izango da gaur Badaion. Dependentzia daukaten pertsonen eta euren familiek jasotzen dituzten laguntzen inguruko informazioa emango dute bertan. Artubi elkartearen izango da hitzaldia 16:30etik aurrera.

Sendabelarrez eta aromaterapiaz ikasteko

ERREDAKZIOA

Tolosaldean Ikastn erakundeak sendabelarrei eta aromaterapiari buruzko hitzaldia antolatu du datorren astelehenerako, hilaren 14rako. Tolosako Kultur Etxean izango da, 19:30etik 21:00etara.

Hitzaldiaren helburua ez da bakarrik gaixotasunik ez egotea, baizik eta bizi-egitasmoak aurrera eramateko kemena, bizitzeko guri-

na, baikortasuna, indarra eta zuhurtasuna lantzea ere bai, «oztopoak gainditzeko, bizitzaz gozatzeko, osoki bizitzeko eta gure ongizatea lortzeko gauza izateko».

Gai hauek lantzeaz gain, 2010eko urtarrilean abian jarriko den sendabelarren ikastaroaren edukia azaltzeko aukera ere aprobetxatuko dute.

Hitzaldia eta ikastaroaren ira-

kaslea Itziar Salegi izango da. Ikastarorako izena eman beharko da aurrez, eta hainbat modu edo bide daude helburu horretarako: Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa Institutuan (Santa Luzia 17) 943 65 11 47 edo 615 7756 78 telefono zenbakietan, info@ikastn.com helbidera idatziz edo www.ikastn.com webgunean online-eginez.



Dagoeneko izena eman daiteke. HITZA

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Logela.** Neska batek logela bat nahi du alokairuan. Tolosaldean. Ahal bada nesken pisu batean. Deitu 677 50 52 94 telefono zenbakira.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako kafetegiko indegi batean pertsona bat behar da arratsaldean lan egiteko. 25 urtetik gorakoa izatea eskatzen dugu.

SALGAI

■ **Kaiolak.** Egoera oso onean dauden txerrientzako bi kaiola saltzen dira. Harremanetarako deitu beharreko telefono zenbakia: 67150 6714.

@ **'Zurea da hitza'.** Zure inguruko berriak sartzeko aukera duzu gure webgunean *Zurea da hitza* izeneko atalean. Dituzun kezak, iradokizunak, gomendioak sartzeko aukera duzu, eta argazki batekin laguntzeko aukera ere emate duzu gure horrek. Lehendik sartuta dauden iritzia ere sar dezakezu:

www.tolosaldekohitza.info



Hezitzaile batek izandako istripua salatuz

GIZARTEA Hilaren 3an, Haur Eskolak Partzuergoko hezitzaile batek istripu larria izan zuen, lanerako bidean. Zaurituari, bere familiari eta lankideei babesa adierazteko asmoz, elkarretaratzea egin zuten atzo Triangulon. Honekin batera, langileek euren lanerako joan-etorrietan euren segurtasuna eta bizia arriskuan ez jartzeko duten eskubidea aldarrikatu zuten. Izan ere, LAB sindikatuak luzatutako datuen arabera, joan den ikasturtean arlo honetako langileen lesio gehienak errepidean izan ziren. E.E.

Hitzaldi zikloaren balantze baikorra egin du Uzturrek

Politika » Gustura agertu dira Fundaziokoak, ekimenak izan duen erantzunarekin; igandean amaiera ekitaldia izango da.

ERREDAKZIOA

«Txato Agirre, Mikel Atxaga, Begoña Rebuelta eta Gorka Agirrek omenaldi beroa eta oparoa jaso dute». Uzturre Fundazioak jeltxide hauek egindako lana eskertzearen, abertzaletasuna ardatz hartuta hitzaldi ziklo bat antolatzen zuten, eta erantzun «oso ona» jaso du.

Xabier Arzallusek azaroaren 12an hasi zuen bidea, eta Markel Olano, Joseba Egibar eta Juan Jose Ibarretzek jarraitu zioten. Kasu guztietan ere txiki geratu ziren aretoak, ikusmin handia sortu baituzuten hizlariek. Hala, ekimenaren oso balantze baikorra egiten dute Fundaziokoek. Itxaropena Urkiola, bertako kidearen esanetan, «abertzaletasuna modaz pasata dagoela esaten den garaian, ez dela horrela ikusi da. Bestalde, lau pertsona hauek omentzearekin batera, eskualdetik kanpo dauden abertzaleen lana ere eskertu nahi izan da».

Hitzaldi ziklo honek, bat baino gehiago urduri jartzeko eta isiltzeko balio izan duela uste dute Uzturrekoek: «Tolosan egin den gauza batek, horrenbesteko oihartzuna izan badu, horrek esan nahi du, bide onetik goazela». Itxaropena Urkiolaren esanetan, «erakutsi dugu jendeak nahi duela. Izan ere, badirudi lozorroan gaudela, baina ez da horrela, jendea hor dago».

Hasieran espero zutena baino jende gehiago joan omen da hitzaldietara. Aipagarria da gainera, entzuleen aniztasuna: «Jendeak uste bazuen ere EAJri afiliatutakoak



Ibarretxeren hitzaldia izan zen ikusmin handiena sortu zuenetako bat. I.T.

bakarrik etorriko zirela, ez da horrela izan, pentsaera eta iritzi ezberdinetako jendea etorri da saio guztietara». Hala, Urkiolaren esanetan, «abertzale hitza potoloa bada ere, sentimendu bat dela agerian gelditu da».

Azken ekitaldia, etzi

Hitzaldi zikloari ekitaldi berezi batekin emango diote amaiera. Hau etzi izango da, Zerkausion.

12:00etan emango diote hasiera jaiari. Hala, girotzeko, euskal kantuen saio bat izango da, bertsolarietan batera.

12:30 inguruan, Joseba Egibarreren hitzaldia izango da toki berean. Honek, abertzaletasunaren gaia izango du ardatz, baina aldi berean, lau omendua izango ditu gogoan. Jarraian, arkume dastatzea izango da eta jai giroan amaitzeko, euskal kantua.

Gutunak

Emakume abertzaleen IV. topaketa feministak

Tolosaldeko Ezker Abertzaleak bere atxikimendua agertu nahi dio Euskal Herriko Bilgune Feministak larunbat honetarako Tolosan antolatu dituen Emakume Abertzaleen IV. Topaketa Feministei. Bertara joateko deia egin nahi diegu ezkerreko emakume abertzale guztiei eta era berean jakinarazi, gure ordezkariak bertan izango dela.

Ezinbestekoa da emakumeen artean bildu eta eztabaidatzea egungo egoera irauli nahi bada.

Euskal Herriko aldaketa politiko eta sozialaren norabidean, politika feminista integrala aldarrikatzen du ezker abertzaleak eta norabide horretan urrats praktikoa dela deritzogu larunbaterako hitzordua. Interes handiarekin hartu dugu gainera, Bilgune Feministak proposatu duen identitateen gaia. Ezinbestekoa deritzogu mugimendu feministaren planteamenduak eta proposamenak gertutik ezagutzea, Euskal Herriaren aldatarako bidean urratsak emateko.

Tolosaldeko ezker abertzalea.

Tolosa.

Kale antzerkia izango da bihar, Triangulon

Aisia » Komertzio foroak antolatutako ekimenen baitan, Deabru Beltzak taldekoen emanaldia izango da 18:30etik aurrera.

ERREDAKZIOA

Tolosako Komertzio foroak abiarazitako ekimenaren baitan, Deabru Beltzak kale antzerki taldearen emanaldia izango da bihar. 18:30ean Triangulo plazatik abiatuta, Alde Zaharretik barrera Les Tambeurs de Feu lana aurkeztuko dute. Bertan, Aker, akelarreko debria, kaleetan zehar ibiliko da bere lagun perkusionistekin. Zuzeneko musika, piroteknia eta izugarriko efektu espezialez osatutako ikuskizuna. «Esku bat danboirean eta bestea "ziriana», honela sortu da Deabru Beltzak taldearen proposamen berria.

Euskal Herriko hainbat antzerki taldetik zetozen aktoreek sortu zuten 1996an Deabru Beltzak kale

antzerkia. Orduz geroztik, 10 antzezlari aurkeztu dituzte eta horietan 2.000 ekitaldi egin dituzte; 60 ekimen berezien antolakuntza; 50 hiritako jaien zuzendaritza artistikoa; munduko 30 taldeekin elkarlana... Gaur egun erakunde hauekin kolaboratzen dute: Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gobernuko Hezkuntza, Kultura eta Kirol departamentua, Bilboko Udaleko Kultura Saila, Gouvernement du Quebec, Le Moulin Fondu, Le Foreneau, Leioako Umore Azoka, Fira de Teatre al Carrer de Tàrrrega, Arriola Kultur Aretoa, Lekeitioko Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdia, Portal 71 producciones culturales, Bizkaiko Foru Aldundia eta Artez (Arte Eszenikoaren Aldizkaria).

Lau kontinente eta 30 herrialde baino gehiagotan egin dute lana Deabru Beltzako kideek. Datu hauek eskuetan, nazioartean lan gehien egin duen euskal talde baten aurrean aurkitzen gara, gutxi jar dezaket zalantzan.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Aberriak
11
ostirala
20:30
topaketa.TOLOSA

Aitarekin bidaian
hika teatroa

Zahartzaroa ardatz hartuta 'Aitarekin bidaian', gaur

Tolosa » Topic-en aurkeztuko dute antzezlana, 20:30ean; Jose Ramon Soroiz eta Joseba Apaolaza dira antzezleak.



Jose Ramon Soroiz eta Joseba Apaolaza ariko dira gaur oholta gainean; antzezlaniari musika, berriz, Jabier Muguruzak jarriko dio. HITZA

NOELIA LATABURU

Zahartzaroa, aita-semeen arteko harremana, belaunaldien arteko aldea, bakardadea, bizitzaren inguruko hausnarketa,... Gai hauek guztiak ukitzen ditu *Aitarekin bidaian* antzezlana. Hika Teatroa taldearen eskutik, gaur taularatuko dute Topic-en, 20:30etik aurrera; Titirijai jaialdiairen ondoren Topic-en egingo den lehen ikuskizuna izango da, hain zuzen. Sarreak bertan izango dira salgai, emandako hitza ordubeten lehenago, 10 eurotan.

Antzezle lanetan, berriz, euskal antzerkigintzaren bi aurpegi ezagun ariko dira, Jose Ramon Soroiz eta Joseba Apaolaza. Jabier Muguruzak jarriko dio musika istorioari.

Istorioren nondik norakoak

Bi bidaideak, aita-semeak, elkarrekin bizitzera kondenatuta geratu dira. Halaxe eskatu zion amak hil aurretik Patxi semeari; haren faltan, aita zaintzeko. Hau da *Aitarekin bidaian* lanaren abiapuntua.

Patxi zinez saiatuko da amari emandako hitza betetzen baina, laster jabetuko da aita ez dela jada amak ezagutu zuen gizona; orain beste bat dela. Aita gaixo dago, zahartzaroko gaixotasun horietako batek jota eta maiz, oso maiz, aitak ihes egingo dio beste mundura. Patxiaren bizitza infernua bihurtuko da, eta aitaren zaintzak arazoak sortuko dizkio bere eguneroko harremanetan: neska-lagunak utzi berri du eta lanean ere kaleratzeko zorian daude. Patxi gehiago ezin eta zerbait egiteko behar gorria ikusi du.

Umerez jositako drama

Istori honetxuraz dramarako osagai guztiak dituen arren, umoreari ere tokia utziko dio, atal asko modu absurdoan jorratuz eta on-

» HAINBAT DATU

- **Izenburua.** 'Aitarekin bidaian'.
- **Non.** Topic-en.
- **Noiz.** Gaur, 20:30ean.
- **Sarreak.** Topic-en bertan, ikuskizuna baino ordubete lehenago salgai. 10 eurotan.

Fitxa teknikoa

- **Taldea.** Hika taldea.
- **Egilea.** Arantxa Iturbe, Agurtzane Intxaurreaga.
- **Zuzendaria.** Agurtzane Intxaurreaga.
- **Antzezleak.** Jose Ramon Soroiz, Joseba Apaolaza.
- **Aktore-musikaria.** Jabier Muguruzak.
- **Zuzendari laguntzailea.** Tessa Andonegi.
- **Musika.** Jabier Muguruzak.

doriorz, memento barregarri eta hunkigarri asko sortuz.

Aitak eta Patxi hogeita lau ordu nahikoa izango dituzte bizitza osoari erreparoa emateko; aitatasunaz hitz egiteko, guraso-semeen arteko harremanez, adiskidetasunaz, belaunaldien arteko aldeaz, bakardadeaz, bizitzaz beraz hausnartzeko. Sentimenduei bide eman eta une xamur bezain eroak sortuz, Patxi eta bere aitak, ikus-

learen barrenak astindu eta dantzan jarriko dituzte akordeoiaren soinu etengabe. Adagiotik alle-grettora konturatu gabe salto egingez, fortetik mezzo fortera..., piano-piano...

Zergatik zahartzaroa?

Hika Teatroa taldekoek bizitza itxaropena luzatzen ari dela-eta, jendartean zahartzaroa hartzen ari den protagonismoa nabarmendu dute. Etxekoak zahartzen ari zaizkionari *Nola moldatu zaharra zaintzeko?* bezalako arazoak planteatzen zaizkionez hau taulara eramatea otu zitzaizien.

Ikus-entzulea zahartzaroaren inguruko hausnarketa egiten jartzea da helburua

«Egoera honetan dagoen protagonista batekin eraiki dugu lana, eta une dramatiko nahiz umoretsuak eskaintzeko aukera ematen duen egunerokotasuneko pasadizoekin», azaldu dute antzerki taldeko kideek. «Interesa areagotzeko aita zaindu behar duen protagonista gizonetako eraiki dugu, hau aruntena ez den arren; azken batean, gure protagonista ere ez da arrunta», gaineratu dute.

Taldekoen helburua ikus-entzuleak gai honen inguruan hausnartzen jartzea da.



Bidegorria, berriz ere hondoratuta

IBARRA » San Bartolome plaza eta Azkue auzoaren arteko bidegorriko brea berriz ere hondoratu da. Ez da berria bidegorri honetan arazoak izatea. Aurretik ere behin baino gehiagotan konpondu behar izan dute lurra. Hilabete honen hasieran ere bigarren aldiz konponketa lanak egiten aritu ziren udal langileak. REBEKA CALVO

Laburrak

Egues euskal presoaren urtebetetzeko argazkia, etzi

ELDUAIN » Etzi, igandea, Ana Belen Egues euskal presoaren urtebetetzeko argazkia ateratzeko asmoa dute herrikideek. Horretarako herriko plazan elkartzeko dira, 17:30ean. Bertara azaltzeko deialdi zabala egin dute.

Gaur banatuko dituzte Galtzakomik-eko sariak

IBARRA » 100 lan baino gehiago jaso dituzte Galtzakomik lehiaketako antolatzaileak. Guztien artean onenak aukeratu eta gaur egingo dute sari banaketa, 19:30ean Kultur Etxean. Lan guztiak ikusgai jarriko dituzte bertan.

Jardunaldi berria sokatira taldeentzat

ERREDAKZIOA

Ibarrako sokatira taldeak bihar Oiartzungo Elorsor kiroldegian ariko dira, Lauko Euskadiko Sokatira Txapelketako bosgarren saioan. Bertan gizonetako 300 eta emakumezkoen 255 kiloko bigarren jardunaldi jokatu dute, 17:00etatik aurrera. Sailkatzeko bi jardunaldi jokatu dira, etabera, finalerako txartelak erabakiko dira biharkoan. Pisu bakoitzeko sei taldek izango dute aukera finala jokatzeko, hilaren 20an, igandean, Arrigorriagan (Bizkaia).

Lehen taldean, emakumezko-

tan eta 255 kilotan, Ibarra A eta B taldeek jokatu dute. Eurekin batera, Amaiur (Nafarroa), Badaioz A eta B (Gasteiz, Araba), Berriozar (Nafarroa), Beti Gazte (Lesaka, Nafarroa), Girizia (Oiarzun) eta Sakana A eta B (Nafarroa) izango dira lehiak.

Gizonetako kasuan, Ibarra-ekin batera, Abadiño A eta B (Bizkaia), Amaiur A eta B, Astigarraga Auzolan, Baiona A eta B, Barrendia, Berriozar, Ezpeletako Napurrak A eta B eta Arrigorriaga-ko Sokarri A eta B taldeak ariko dira.



Aitaren bidean
antzerki saiorako

Gaur • 20:30ean • Tolosako TOPI Cen
Begoña Garmendia (Ikaztegieta)
Izaro Etxaniz (Tolosa)

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren
FINALERAKO



Abenduak 13 • Igandea • BEC-en
Txaro Fernandez (Ibarra)



saridunak

Tolosako Orfeoia
Gabonetako kontzertua

Abenduak 23 • Asteazkena
20:30ean • Leidor aretoan
Luis Mugerza (Tolosa)

ekar

NIK ZURI
ZUK NIRI
KULTURA
OPARI 


www.ekar.com

Antton Pebet gogoan dutela, Eskuz Binakako Txapelketa antolatatu dute

Villabona » I. Antton Pebet Memoriala abenduaren 18an hasiko da. Behar Zana Kirol Elkarteak antolatu du Eliteko Txapelketa.

ENERITZ MAIZ

Behar Zana Kirol Elkarteak I. Antton Pebet Memoriala antolatu du. Abenduaren 18an hasi eta urtarrilaren 9an bukatuko litzateke lehen aldiz antolatu duten Eliteko Txapelketa. Partida gehienak Villabonako Bear-Zana pilotalekuan jokatu dira, baina final laurdenetako jaialdi bat Zizurkilgo Intxaurren frontoi berrituan izango da. Jaialdi bakoitzean, hiru partida egongo dira.

Kadete, jubencil eta nagusien mailako Eliteko Txapelketa izango da eta Euskal Herri osoko pilotariak hartuko dute parte bertan. Final laurdenetan lau kanporaketa izango dira, ondoren bi saio final laurdenetan eta bukatzeko finala urtarrilaren 9an 18:00etan hasita Villabonako Bear Zana pilotalekuan izango da.

Antton Pebet gogoan

Behar-Zana Kirol Elkarteak pilotaria zen Antton Pebet angeluaz azken bi edo hiru urtetan. Pilota munduan ezaguna den Joxean Jauregiaren bidez hasi zen Villabonan jokatzeko. Nahiz eta Lapurdiko Angelu herriko izan, Iñaki Lizaso villabonarrarekin batera osatzen zuen bikotea, duela hilabete gutxi, abuztuaren 6an, inork espero ez zuela hil zen arte. Lo zegoen bitartean izan zuen isuri baten ondorioz hil zen 22 urte besterik ez zituen pilotari gaztea. Bere pilotako bikoteak «sasi artean aurkituriko lorea bezala» gogoratu nahi izan du.

«Behar Zana Kirol Elkarteak beti izan du Txapelketa bat prestatzeko gogo. Lan handia eskatzen duen gauza da eta aurrerago egiteko zerbait zen, baina Antton hil zela kontuan izanda, jada txapelketa horrek izena dauka: Antton Pebet Memoriala» azaldu digu Iñaki Lizaso Behar Zana Kirol Elkartearen arduradunak.



Iñaki Lizaso Behar Zana Kirol Elkarteak, I. Antton Pebet Memorialaren kartelarekin. E. MAIZ

Txapelketako pilotarien artean, Euskal Herrikoak lortzen saiatu dira: «lurrede guztietako pilotariak izaten saiatu gara eta iparraldekoak, nafarrak, gipuzkoarrak, arabarrak eta bizkaitarrak izango dira. Bakoitzetik norbait egongo da» gaineratu du Lizasok.

Bestalde, «eskerrak» eman nahi dizkie Behar Zana Kirol Elkarteak, bai Villabona eta Zizurkilgo Udalei eta baita Memorial hau antolatze-ko laguntza eman duten guztiei

ere. «Pilotak, sariak, diru sariak, ...asko da azkenean. Jaialdi bakoitzean, sei harategiak eta sagaridoteziek emandakoarekin saski bana prestatuko da, eta pilotalekura gerturatzeko diren artean zozketatuko dira. Finalerako berriz, Gopargure babeslea denak prestatuko saskia izango da» azaldu du. Sarrera doakoa izango dute jaialdi guztietan.

Finalean «agurra, oroigarriak, txapela eta omenaldi txiki bat ere

egingo zaie gurasoei, oraindik ez baitzaio egin. 1.200 lagun elkartu ginen bere hileta izan zen pilotalekuan».

Gaur Finala Bergaran

Bestetik, Behar Zana Kirol Elkarteak diren Lizaso eta Erreka bikotea, Gipuzkoako Afizionatuen lehen mailako finalera iritsi dira. Gaur, 20:00etan Bergarako pilotalekuan jokatu dute partida Muguraza eta Jauregi bikotearen aurka.

» I. ANTTON PEBET MEMORIALA, ESKUZ BINAKAKO ELITEKO TXAPELKETA

Abenduak 18, ostirala 22:00etan Villabonan

- **Kadeteak.** Erstarbe-Ormazabal 'Artzai', Maiza-Elustondoren aurka.
- **Jubenilak.** Urbieta-Jaka, Oronoz-Maizaren aurka.
- **Nagusiak.** B. Bilbao-Alberdi, Lizaso-Errekaren aurka.

Abenduak 19, larunbata 18:00etan Zizurkilan

- **Kadeteak.** Otaño-Murgiondo bikotea, Artola-Oriaren aurka.
- **Jubenilak.** Santxo-Azpitarre, Ariztimuño-Ulangaren aurka.
- **Nagusiak.** Elurbe-Okiñena, A. Mendizabal- Aldaperen aurka.

Abenduak 26, larunbata 18:00etan Villabonan

- **Kadeteak.** Olano-Tolosa bikotea, Jaurena-Cordonen aurka.
- **Jubenilak.** Urretabizkaia-Bereziarte, Karrera-Rezustaren aurka.
- **Nagusiak.** Alvarado-E. Galarra-ga bikotea, Onsaldo-Zubiriren aurka lehiatuko da.

Abenduak 27, igandea 11:00etan Villabonan

- **Kadeteak.** Zelaia-Labaka, Agirre-Goñiren aurka.
- **Jubenilak.** Loidi-Zinkunegi bikotea, Bendoiro-Santxezen aurka.
- **Nagusiak.** Atxotegi-Loiola bikotea, Ojuel-Gorrotxategiren aurka.

Urtarrilak 2, larunbata

- **Finalerdiak.** 18:00etan, abenduak 18ko irabazleak, abenduak 26ko irabazleen aurka ariko dira.

Urtarrilak 3, igandea

- **Finalerdiak.** 11:00etan, abenduak 19ko irabazleak, abenduak 27ko irabazleen aurka.

Urtarrilak 9, larunbata 18:00etan Finala

- **Villabona.** Urtarrilak 2an eta 3an jokaturiko partiduetako irabazleen artean jokatuko dira azken partiduak.
- **Ondoren.** Sari banaketa eta Pebeten gurasoei omenaldia.

Laburrak

Elorri pilotalekuan kadete mailako partidak gaur

ALEGIA » Alegiako Elorri pilotalekuan berrituan gaur 20:00etan hasita bi partiduko jokatu dira. Lehenengo partida 2. mailako kadeteen izango da, Intxurren eta Hernaniren artekoa hain zuzen ere. Hauen ostean, lehen mailako kadeteen txanda izango da eta kasu honetan, Intxurrek Aurrera Saiazeko en aurka jokatu dute.

Ezker hormako partida Hernanin, Su-Berrikoek

ANOETA » Larunbatean, nagusien mailako neska anoetarrek partida izango dute 16:00etatik aurrera, Hernaniko pilotalekuan. Bertan, Ezker hormako Gipuzkoako Elkartearen arteko Txapelketan, 2. mailan diharduten Hernani 3 eta Su-Berrikoen arteko partidak izango dira. Aldiz, Nagusietan, lehen mailan lehiatzen ari diren Su-Berrikoek atseden izango dute.

Irakokizunak jasotzeko postontzia jarri dute

IRURAKO » Irurako Udalak, azaroaren 26an izandako Herri Batzarrean aipatu zen bezala, irakokizun postontzia ezarri du herritarren proposamenak eta iritziak jasotzeko. Postontzia udal bulego orokorrean kokatzen da. Beraz, Udalak herritarren bizi kalitatea hobetzeko izan daitezkeen irakokizunak postontzian sartzeraz animatu nahi ditu herritar guztiak. Postontzia otsailaren 5a bitarte egongo dela jarrita jakinarazi nahi dute.

Angel Unzuren kontzertua doan Gurea Zineman

VILLABONA » Angel Unzuk, ohikoa duen moduan, bere gitarrekin kontzertua eskainiko du. Gurea Zineman izango da gaur 20:30etik aurrera eta Kutxak sustatu duen ekintza honek sarrera doakoa dauka. Angel Unzuk, bere kontzertuetan «arte eskaintzen du gitarra klasikoaz eta akustikoz», eta horiek baliatzen ditu eszenan, jendea liluratuta uzteko. Duela hainbat urte erabaki zuen bere komposizio bakarka eskaintzea, kontzertuak nahi zuen bezala eramateko sentitzen zuen beharragatik.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



17°
3°

GOIZA LAINOTUA
ARRATS. LAINOTUA
BEROENA 10°
HOTZENA 1°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Goikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_publicidad@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Eskatu eta eraman 'Egunkaria libre!'

EGUNKARIA AUZIA © TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren lokalean, oraingoz Tolosakoan, *Egunkaria libre!* jartzen duten kartelak aurkitzen dira edonoren eskura. Bertara joan eta eskatzea nahikoa da.

Egunkaria auzian dauden auzipetu guztiei elkartasuna azaltzeko sortuak dira kartel hauek. Behin eskuratu, bakoitzak nahi duen lekuan zintziak dezake kartela: balkoi, terraza, lokal... A. IMAZ

A Agenda

Antzerkia

■ **Amezketeta.** Haurrentzako antzerkia gaur, 19:00etan, Larrunari pilotalekuan. Ane Monna, Oskola eta Karamarroi taldearen *Ino, Ino, badator Bonbardino* izango da ikusgai.

Azoka

■ **Berastegi.** Elkartasun Azoka egingo dute abenduaren 12tik 18ra bitartean. Arropa, jostailuak, liburuak, altzariak... jasoko dituzte Muñagorri eskolan azokan salgai jartzeko.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Abenduaren 13an BEC-era Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa antolatuko du Galtzaundik. Izen-ematea, egoitzan 9 eurotan (ez bazkideek, 12 euro).

Erakusketak

■ **Tolosa.** Abenduaren 31 bitartean *Tolosarra angularra* Iñaki Elolaren argazki erakusketak Beti Alai tabernan.
■ **Tolosa.** Abenduaren 31 bitarte-

an, Ignacio Garciaeren margolanak ikusgai Itaie tabernan.

Lehiaketak

■ **Villabona.** I. Euskarazko Bakarriketa Lehiaketa: gaia librea eta 10-15 minutu arteko iraupena. Izen-ematea, udaletxean. Bakarriketa guztiak urtarrilaren 15etik otsailaren 19a bitartean aurkeztu beharko dira Gurea zine aretoan.
■ **Villabona.** *Emakumeak eta migrazioak* komiki lehiaketa. Lanak

hilarren 30erako entregatu behar dira Tolosaldea Garatzeko Im-migrazio Sailean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia 7, 943 65 06 48.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

USABALGO LASKORAIN IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEA

Bazkide-Lagun, agur:
Urteko Ohiko Batzar Orokorra dei egiten dizut. Euskal Herria plazako TOPICen burutuko dugunera. Batzar hau **abenduaren 17an, osteguna**, izango da **arratsaldeko 19:00etan** hirugarren deialdian. (Lehen deialdia 17:30ean eta bigarrena 18:00etan).

Bertan jorratuko diren gaiak honako hauek dira:

- 1.-Aurreko urteko aktaren berri jaso.
- 2.-Partaide berriak jurtan eta Gurasoen lan-batzordeak
- 3.-Laskorain Ikastola Euskal Herriko Ikastolen Kooperatiba Europarrean bazkidetzea
- 4.-Balantzea eta Aurrekontua.
- 5.-Aripletuak berriak
- 6.-Kutuak eta finantzazio iturriak
- 7.-Ikasturteko egitasmoa eta emaitzak.
- 8.-Akta onartzeko bi kide izendatzea.
- 9.-Galdera eta eskeak

Tolosan, 2009ko abenduaren 11ean
Batzordeko Lehendakaria

P Publierreportajea

Eguzkilore osagarri eta bitxiak: babeserako nahia

Gizartea » Zuluaga bitxigileek Eguzkilorea boladan jarri dute, babeserako eman dezan.

Eguzkilorea etxean atarian zintzi-likatzen zuten, balizko arriskuen-gatik babesteko asmoz. Orain, berriro ere, boladan dago hori jartzeko. Eguzkilore markaren eskutik itzuli da ohitura mitologiko zaharra, bitxi eta osagarri formarekin. Horretarako, lorearen historian oinarritu dira. Hainbat arrazoiengatik, Eguzkilore piezek askotariko pertsonak erakartzen dituzte: zerbait ezberdina eta originala bilatzen dutelako; bere historia baloratzen delako; bere kuttuna izatea bilatzen dutenak badira, garai bateko magia gordeko baluke bezala.

Jatorrizko lorearen historiari Eguzkilore opari gogokoenetako izatea bilakatu du. Opari horren bitartez, esplizituki babesteko nahia adierazten du. Nahia egia bilakatzeko, sorta handian aukera liteke: gizonezkoentzat eta emakumeentzat zilarrezko eta urrezko bitxiak; poltsak; betaurrekoak; osagarriak (zapiak, korbatak, giltzatak). Umeentzat diseinuak ere badaude: txupeteentzako kateak; dominak; markoak eta mahai-tresnak.

Antzinako historia
Piezen edertasunak mundu guztia harritu badu, Eguzkilorearen esanahia jakiteak ezaguna izatera eta arrakasta edukitzera eramandu. Lorea Eguzkiaren boterearen sinboloa zela uste zuten arbasoek eta haren dohain guztiak zituela uste dute. Gure aitonen amonen garaian

sinesmen horrek bizirik jarraitzen zuen eta lorearen inguruko kondairak kontatzen zituzten. Horrela iritsi zitzaizten Zuluagarre, euren belaunaldiko askori bezalaxe. Euren jasotakoaren arabera, lamiak gaez joaten ziren etxeetara, jaioberriak lapurtzera. Atean Eguzkilorea zuten etxetan, aldiz, lamiak petaloak kontatu behar zituzten sartu aurretik. Zenbatzen ez zekitenez, behin eta berriro has ten ziren, goizeko lehen eguzki printzak atera arte. Orduan ihes egiten zuten, ez harrapatzeko.

Made in Zuluaga

Bilduma guztiak diseinu eskuliboa dute eta Zuluagarren kalitate irizpideen arabera eginak daude. Mende erdi baino gehiagoko esperientzia dute Zuluagarre maila altuko bitxigintzan. Eurak dira nabardura guztien benetako tasuna zaintzen dutenak.

Eguzkilore babesteko nahia eraiten ari da dituen hiru saltokietatik. Bilbon (Kale Nagusia, 84), Donostian (Hernani, 13) eta Gasteizen (Foru kalea, 20) daude dendak. *On-line* denda ere badute: www.eguzkilorejoya.com webgunean dago.

Eguzkilorek Julian Iantzi 'babesten' du

Julian Iantzi da Eguzkilorearen kanpaina berriaren protagonista. Arriskua beti Julianen hurbil da goela dirudi. Hamabost reality-tan hartu du parte, gehienak bizirau-penarekin zerikusia dutenak. Bere izpiritu abenturazalea Eguzkilorearen historiari lotzea naturala bezain egokia da magiak Patagonian lagundu dezan...

